

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bartolo Etxabe Oliden

*Zumaia,
Gipuzkoa
(1928-2008)*

Aurkibidea



Biografia



Oikiako (Zumaia) Lore baserrian jaioa. Ondoren, baserriaren gainean etxe berria eraiki zuten, eta hantxe bizi izan zen beti. Aitaren familia bertakoa zuen, eta amarena, berriz, Oikiako Jesuskoa baserrikoa. Gazte-gaztea zela izan zuen lehenengo autoa (Oikiako lehenbizikoa), eta harrezkero gidari lanetan aritu izan zen. Furgonetak eta autobusak izan zituen. Hasieran, batez ere, baserritarrak eta esnea Zumaiara eramaten zituen; ondoren, Oikiako lantegietako jendea ekarri eta eramaten zuen.

Zintak

ZUM-010

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-06-25
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

ZUM-031

- **Proiektua:** Zumaiako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 45 min
- **Euskarria:** CD
- **Emalea:** Azkue Ibarbia, Xabier

Pasarteak

1. "Marqués de Balzola" baserriaren nagusia urtero etortzen zen

- **Erref:** ZUM-010/001
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Baserriaren jabeak bi titulo zituela aipatzen du: "Conde del Valle" eta

"Marqués de Balzola". Beretzako logela ere bazuen baserrian eta urtero etortzen omen zen bisitan. Markesaren logelak burnizko atea zuen. Bera ez zen bertan lotan geratzen, baina administratzailea sarritan etortzen zen hautsak kentzera. Etxeak armarria ere bazuen eta zutabeen gainean eraikia zegoen.

2. Administratzailea etxera etortzen zen errenta kobratzera

- **Erref:** ZUM-010/002
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:07:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Urtero errenta pagatu behar izaten zuten. Azkenaldera administratzailea etxera etortzen zitzaien errenta kobratzera. Zumaiako beste baserri batzuetan ere maizterrak ziren eta denak euren etxean elkartzen ziren errenta pagatzeko. Errenta gariarekin eta kapoiekin ordaintzen zen. Baserriaren tamainaren arabera kapoi pare bat edo bi entregatzen zen. Kapoiekin ordaindutako errenta bai, baina gariarekin ordaindutakoa berak ez du ezagutu. Gerora garia norberarentzat izaten zen, baina dirutan ordaindu behar.

Transkripzioa

- Eta esan dezu, urtero-urtero, errenta pagatu behar, ez, gariakin?
- Bai, bai. Errenta paatzea. Ta azkenaldea, azkenaldea... Karo, hamen [...] bazauzkan zeak, basarriyak harek. Ta azkenaldea bere zea, bere nausiya o, beak zakan, ipiñita zakan gizona gure etxea etortzen huan kobratzea, errenta kobratzea. Ta hamen eoten hittun hori... Zumaiako [Probes] basarriya badakik nun daon? Hoiek danak gurekin batea maixterrak hittun. Hoiek gure... honea etortzen hitun errenta paatzea.
- Paatzea.
- Bai.
- Lorera.
- Lorea. Loren itten ziyen zea, reuniyua. Maiordomua horrea etortzen huan kobratzea...
- Administradoria.
- Eo administradoria o...
- Bai, bai.
- Guk maiordomua esaten deu.
- Maiordomua esaten dezue.
- Ta horrea beren kapoiakin, ordun kapoiak entregau behar izaten hittun.
- A bai, e? Garia eta...
- Gariya ta kapoiak. Ta kapoiak eukitzen zixkin, ba, karo... Basarriyak, segun ze kategorittako baserriyak zian, eukitzen zuen batzuk bi, bestiak bi pare kapoe, hola. Baserri haundiyenak hola, bi pare kapoi o hola eukitzen zixkiñ.
- Bai, e?
- Ta txikiyenak eo hola, basarri narras xamarrek zienak, eo karo, langilleik ez zianak, o... Leku batzutan ez huan [hamengo baserritan], ze esango det, gu, Zelaieta hor goittik behera daon [...] barreneko basarriya're harena huan. Ta hori, ba, ez huan lantzen.
- Karo, terreno gutxi ta...
- Terrenua asko zakan, baiña langilliak ez! Ta geo, handik pixkat behero,

hamen ordeka-ordeka hittun ta han aldapak! Ta karo, harriya're urria zeon han, goldian ta itteko ta... Oseake, diferentiake hittun zeak, nota diferentiake zazkan. Hola bizitzen hitun. Baiña hua're, hark kapoi pare bakarria hasi.

- Zuek bi.

- Guk bi, bi.

- Bi pare.

- Bi pare eukitzen giñun guk. Karo, hamen itten huan zea... Gure etxian, azkenengo igual hamar o, hamar baiño urte gehio huan, ingo huan gure etxian, zea, entrega. Ta klaro, ordun'e lehenotik Zestuan entrega itten ziyen gariya. Baiña geo ya hori haundiya zala, ta zea, estadia eo administratziya Madriden presiyuak iten hasi huan, ta handik aurea ez huan gariya entregatzen. Gariya hiretzako, baiña, zea, honenbeste diru, honenbeste pezeta urtian pagatu behar hittun.

- Errialak o...

- O errialak, o...

- Eta hori noiz aldatu zan gutxi gorabehera? Ze urtetan?

- Esaten dit, ba, ni... Ni mutil koskorra nitzan. Nere denpoan behintzat. Ni mutil koskorra... karo! Nik ezautu nixkin, ta, hoiek, kapoiak entreatzen ta... Gariya entreatzen ez niñ ezautu.

- Ez.

- Gariya entregatzen... Baiña hamengo gerra ta baiño lehenotik...

- Lehenotik.

- Lehenotik, aurretik. Hori baiño lehenotik.

3. Inguruetan arta-soroak nagusi

- **Erref:** ZUM-010/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Lehen inguruetan dena soroak ziren. Hiru sailetatik bat garia ereiten zen eta beste dena artoa. San Pedroetatik atzera ebakitzen zen garia.</p>

Transkripzioa

- Eta hau, bai Xey zala ta, autopista dala ta, hau inguru guzti hau asko aldatuko zan, ez, azkenengo [...] urtietan?

- Klaro, dana! Hamen teillatuik eta ezer ez huan ikusten lehenotik. Karo, uain arbolak eta ikusten dittuk, baiña lehenotik dana hau artua ikusten huan dana ...

- Artua?

- Dana artua ta gariya, gariya. Karo, hirutik bat iten huan gariya. Ta ebaki iten huan San Pedro, San... hemendik atzea! Uain ya...

- Hortxe, ez?

- Bai, bai. Uain hori-hori-hori-hori-hori eoten huan dana, zea, souak, partzelak. Ta beste dana, beste dana artua.

- Erribera guztiya.

- Bai, bai. Erribera guztiya, dana. Hamen ez huan koskik ezer'e ikusteko.

4. "Hiraulika" (kare hidraulikoa) fabrika berak inguruetan ezagututako zaharrena

- **Erref:** ZUM-010/005
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Inguruetan fabrika bakarra ezagutu zuen umetan, "Hiraulika" (kare hidraulikoa) fabrika. Zementoaren antzeko materia egiten zen bertan. Militarizatuta ere egon zela fabrika kontatzen du. Meatzeetan ateratzen zen fabrikan materia egiteko behar zen harria. "Hiraulika" barkuetan kanpora exportatzen zen Zumaiatik, moilak egiteko erabiltzen zen. Zumaian gaur egun fabrikak dauden lekuan ura ezagutu zuen berak.

5. Lur emankorrak inguruetakoak

- **Erref:** ZUM-010/006
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Euren etxe azpian presa bat zegoen turbina batekin. Marea gora zegoenean ura bertaraino heltzen zen. Hala ere, lursailak altuxeago zeuden eta ez zuten hormarik egin beharrik izaten. Inguruko lursailak oso emankorrak direla demostratuta dagola dio. Harri arteko lurak emankorrak izan ohi dira, baina euren ingurukoa ere bai (buztina duena sakonean).</p>

Transkripzioa

- Eta hamen inguruan ere bai? Hamen, e, erribera ta... Hamen soruak eta izango zian?
- Bai.
- Dana soruak... eta paetak eta iten zian ura ez igotzako edo holako zeoze?
- Ez, ez. Ura hamen, e, hamen gure itxian azpiko aldian presa bat baziok ta horrek, zeon, maria bajan ta altan bakarrik itten zin lana. Maria goian zeonian turbina tapauta zeon, ta karo, turbina urak tapatzen zionian turbinak ez zakan indarrik. Turbinan azpiyan urak txorruak jo, ta salida behar dik turbinak lana ingo baldin badu. Ta hamen maria gora etortzen huan.
- Baina ez zian, lubakiyak eta paretak ez zian iten hamen, e?
- Ez. Hamen...
- Urik ez igotzeko ta...
- Hamen, hamen alboko terrenuak beti altu eon dittuk. Karo, ujal haundiya zanian ta, gaiñetik pasatzen huan, erriyuak saltau itten hittun. Baiña bestela, itsasoko ura ez huan... ez zin tapatzen hamen.
- Eta, terreno ona izango da hau, ez, artotako ta baatzak eta?
- Justifikauta zioz hamen Gipuzkoako terreno onenak ziala Oikiyan.
- Bai, e?
- Justifikatzen dek. Bestia, artua itten-ta ta, apustuak eta jokatzen hittun ordun, artua itten-ta ta. Ta Errezillen jende eo zea, terreno, aldapa, aizu,

baiña hua lur diferentia dek. Kara-haitza dek hua, ta lur aberatsa hua dek. Baiña hamen bezalako zabal hoik ez.

- Ordekan ta, bai.
- Ordekaik eta ez. Diferentia dek lana itteko ta. Uain, lurra hori, harri tartetan zeon eo mendi tartetan zeon lurra ta oso aberatsa huan. Baiña dek, oseake, kara-haitza o dek, zea, harri diferentia dek. Hamen harriik ez. Hamen, hamen behian buztiña zio, hamen, hamen behian...
- Lurra gozua izango da hamen, ez?
- Bai, bai, oso gozua, onena.
- Onena, ez? Lantzeko ta erreza.
- Bai, bai, bai, bai. Lantzeko ta oso lur ona huan. Oain batez. Jendiak laga zitxion horrei ta ez zin baliyo're... Ta karo, errentak eta gauza hoiek'e nahastu hittun, diferente itten dittun gauzak. Ya saldu hittun hamengo baserri gehienak...

6. Erreketeek Oikiako apaiza eraman zuten; haren pistolaren anekdota

- **Erref:** ZUM-010/008
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

Gerra hasi zenean, bera mutikoa zen. Mendi gainetik erreketeak azaldu omen ziren lehenbizi. Beren martxan zetozen soldaduak eta pasaeran baserrietan jatekoa lapurtzen zuten. Gogoan du nola komandanteak pistolarekin mehatxatuta eduki zuen Oikiako apaiza, frontoi parean. Azkenean, eraman egin zuten. Apaizak pistola utzi omen zuen elizako aldarearen atzean eta sakristauak lurperatu egin zuen. Berak nolabait enteratu eta pistola lurpetik atera eta urteetan etxean eduki zuen gordeta.

Transkripzioa

- Hamengo gerran hasieran, gu mutil koskorrak giñun. Kao, geo gerrak urtiak pasa zixkiñ...
- Bai.
- [...] gero. Baiña hasiera lehenotik eman ziñ.
- Bai, bai, bai.
- Hor, oan, goian, mendi horren gaiñian piñuak eta ikusten dittuk?
- Bai.
- Hor gaiñian naparrak azaldu hittun lehendabizi.
- Reketiak?
- Reketiak, lehendabizi, gu mutil koskorrak giñun.
- Eta hortik, e...
- Eta hamengo...
- Hortik [...]?
- Hortikan geo Oikiya etorri hittun, hortikan, tropatan, ta. Gero hortik...
- Eta hamen, batallarik eta izan zan hamen Oikiyan? Ez.
- E?
- Hemen, reketiak eta sartu zianian?
- Ez, ez.

- Gerrarik ez, ez? [...].

- Ez, ez, ez. Ez, ez. Kao, soldauak zean bezela, zeaka, haiek martxan zatoztinak gosiak eta. Oillatokittan ta in ziyen zeoze, aberiya, oillo batzuk harrapauta ta. Nik goguan zakat Oikiyako frontoian ordun zeon apaiza komandantiak, numero tresen parian, jata tirillak eta danak kendu zixkon ta, pistolakiñ apuntatzen eon zala, bertan hil behar zula ta. Ta ez ziyen bertan hill. Zumaira eaman ziyen zeak, hiru soldauk, bi alde banatatik ta beste bat atzetik. Karo, hori... Oikiyan ordun zeon apaiza.

- Eta apaiza zeatik eraman zuen?

- Apaiza oiñez eaman ziyen... Zeatik?

- Ez, ez, zeatik.

- Beste koloreko zalako.

- Gorriya ez zan izango baiña, ez?

- Gorriya o... Ordun bi kolore bakarrik hittun. Oaiñ milla kolore zabek, baiño ordun...

- Alde edo kontra.

- Ordun gorriyak eta karlistak [uste det] izaten zuan ordun. Ta hori nola eaman zan [...] nik. Ta harek, [...] ta!, harek laga zun pistola, pistola bat zakan apaizak, altarian atzeko zean laga ziñ. Ta sankristauak enterrau in ziñ. Ta nik in nin billau. Ta nik euki niñ igual pistola, pistola, holako pistola txiki bat, haren pistola, euki nin igual hogeita hamar urtian gordeta.

- Gordeta.

- Itxian ez dakiyela. Iñoi esan gabe, neu, neu bakarrik. Hori lehengo baserri zaharrian, ganbarako habe haundi batian. Ordun holako habe haundiyak hittun, biga haundiyak. Haietako baten gañian eukitzen niñ pistola hori, bere kargadoria kargauta, ta balak [...] euki nin, ta. Geo ez zekit nola dan... Etxia bota gendunian, han beheko basarri zaharra bota gendunian, nei akordau o. Kao, han eukitzen ninian ez nion kasoik in, ta. Ordun [...] seguru asko hor enterrau ingo huan hua, pistola hua, baiño. [...] gustatu iten zeai eukitzia [...] oaiñ.

- Eta Oikiyako apaizana zan hori.

- Ba, bai. Oikiyako apaizana.

- Ta nola enteratu ziñan zu bertan enterratuta zeola, edo sakristauak ezkutu in zula?

- Sankristaukiñ administradoria eo, sankristauakin... Kao, gu mutil koskorrak belarriyak zorrotzak genduzkan ordun, ta eozar gauza jaso iten giñun. Ta ni enterau eo. Ba, haiek konbersaziyua eukiko zuen baten batekiñ harek, ta...

7. "Txaperoak" etortzen ziren etxeak eta zaldi-karroak miaztera

- **Erref:** ZUM-010/010
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Sobratzen zen babarruna ahal zen lekuan gorde behar izaten zen eta Zumaiako "txaperoak" (aguazilak) etxeak miaztera etortzen ziren.

Baserritarrek jeneroa Zumaiara zaldi-karroetan eramaten zuten eta haiek miaztera edo kentzera ere etortzen zen. Baserritarrek hauek engainatzeko

tranpak ikasi zituzten; adibidez, esnearen azpian gordetzen zuten babarruna. Babarruna entregatu egin behar izaten zen estatuarentzat eta alkateak esaten zien bakoitzari zenbat tokatzen zitzaion.

8. Zumaiako ospitalera esnea eramaten zuten

- **Erref:** ZUM-010/011
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

<p>Inguruko baserritarrak normalean Zumaiara joaten ziren saltzera; gerora baita Zarautzera ere. Oikiako geltokian egunean lau tren gelditzen ziren. Baserritarren jeneroak kargatzeko bagoi berezia etortzen zen batzuetan eta han sartzen zituzten esne-marmitak eta bestelakoak. Bera umetatik Zumaiara joan izan da esne-partitzera. Beraiek zuten Zumaiako ospitalera esnea eramateko obligazioa. 8-10 behi izaten zituzten eta ordurako asko zen hori. Esne asko eramaten zuen kalera berak eta gerora jendea eramaten ere hasi zen autoarekin edo autobusean.</p>

Transkripzioa

- Eta bestela, e, gerratik aparte, e, baiña... lehen, zure gazte denporan eta, hamengo baserritarrak nola juten ziran azokara? Azokara o saltzera...
- Zumaira, zumaira.
- Zumaira beti?
- Beti Zumaira.
- Zarautza, o...
- Zarautza ta juten ta, klaro, nik autobusa hartu nuan ta, autobusakin hasi niñun ni azoka Zarautza juten-ta ta. Ta hamen, estaziyuan, Oikiyan estaziyua bazeon. Ta Oikiyako estaziyuan goizeko... egunian lau tren geatzen hittun. Ta goizian lanea zijuan jendia ta, hor zeozer eaman bihar baldin bazun, esnia ta o zeozer, marmittakan bat esne o hor, bagoi espeziala ekartzen zin trenak. Ta zea, andenian toki bat eoten huan, zea, inguruan zea, ta haien parian gelditzen huan bagoi hori...
- [Esnia...]?
- ...han kargatzen...
- Esnia kargatzeko.
- Marmittak eta kar...
- Marmitak...
- Marmittak eta kargatzeko ta beste, tomatia ta iten huan orduan asko... asko eo... Oaingo ez dek asko baiño ordun eskutan astuakin ta eaman bihar huan estaziyoa ta, karo. Ta uain kajetan ta ibiltzen dek, baiño ordun astaotarretan, bere, astuan bere otarretan ta ibiltzen huan ta. Karo, gauzak diferente, askosez zaillo huan zea, lan hori itten, baiña... horrea, estaziyoa eamaten zin.
- Eta zuek, esne-partitzen eta, esan diazu, zuk beti Zumaian.
- Zumaira.
- Esne-partitzen...
- Bai.
- Txiki-txikitatik?
- Bai, txikittatik eo... Bai. Zumaiako ospittala ein zanetik, obligaziyua

geneukan guk ospittalea eamateko esnia. Ospittala guk sostenitzen giñun, zeak, Lorek. Basarriyak zakan zea, obligaziyuai eutsi. Hamen zan basarri fuertentxona huan hau garai hartan, ta, klaro, obligaziyua...

- Ganau asko?

- Asko, asko...

- Beste batzuk baiño gehio.

- Oaiñ ez dituk asko, baiña garai hartan bai. Garai hartan igual eongo hittun zortzi-hamar bat behi, ta garai hartan asko huan. Oain berrogei eozein lekutan zabek!

- Eta esnia ospittalea orduan?

- Bai, eunian, eunian eaman behar izaten gendun zortzi litro esne ospittalea, urtetan, e! Kao, ospittala fundatu zanetik hasi, ta ni esnetai laga niyon arte, esnia ematen segi. Nik ez dakit ba zenbat urtian... berrogei urtetan baiño gehio huan...

- Eta bestela, ospittalea...

- Ospittalea... beste gaiñuntzekua saldu itten nin nik! Baiño nik eamaten nixkin ordun, pues, ehun ta berrogeita hamar litro esne, o gehio igual eamango nixkin, hamen, basarritar batena ta bestiena. Ta, tarte hartan, zerbiziyua iten nin, bertan Zumaira zijuazten, azoka zijuazten jendia eamaten nin, ta kao, lehenotik astuakin juten hittun.

- Autobusian o kamioyan?

- Autobusa o... kotxe zahar batekin! Atzian remolkia ipini ta han, [...].

- Esnia eamaten zendun, eta... eta jentia.

- Jendia ta haien trastiak, been otarrak eta... Hori asteburutan ta jende gehio juten huan konprak ittea ta. Karo! Garbantzua o zeozer ekarri in behar huan. Itxian baba ta eoten huan, baiña beti ezin dek jan baba eo eozer. Aillatzen zanak bestiak baba jan behar. Ordun diru gutxi zeon ordun.

- Bai.

9. Gidatzeko baimenik gabe mutikotan hasi zen "taxista" lanean

- **Erref:** ZUM-010/012
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:37:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Aita ganadua ferietara eramaten ibiltzen zen kamioiarekin eta bera harekin batera hasi zen kotxe zahar bat hartuta jendea eramaten. Soldadu joan aurretik ere ibiltzen zen, nahiz eta gidatzeko baimenik ez izan. Lehenbiziko kotxea Donostiatik ekarritako Citroen zahar bat izan zen. Etxean karro antzeko bat egin eta hari eransten zioten erremolke gisara. Orduan errepideak zaintzen zituztenak motoetan ibiltzen ziren. Haiei eskupekoa emanaz gero, ez zuten isunik jartzen.</p>

10. Lehenbiziko autobusak egurrezko karrozeria

- **Erref:** ZUM-010/014
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:38:00. **Bukatu:** 00:42:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

<p>Hasieran Citroen zahar batekin hasi zen lanean eta gerora beraiek etxean montatutako garraioak moldatzen zituzten. Lehenengo autobusa Eibarko La salle ikastetxetik erosi zuen. 18 plazakoa zen eta egurrezko karrozeria zuen. Geroago Pegaso autobus berria erosi zuen eta istripua izan zuen frenoek huts eginda. Egunero Zumaiaetik langileak ekartzen zituen inguruko lantokietara, batez ere "Pollos Oikina"-ra. Lehen bertan hil eta bertatik banatzen ziren oilaskoak.</p>

11. Lore eta Basalde baserriak; inguruko baserriak

- **Erref:** ZUM-010/017
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:47:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Lore baserria oraingo etxea dagoen lekuan zegoen. Lore eta Basalde baserriak ziren elkarren aldamenean eta Basalde oraindik lehengoa dago. Inguruetan zeuden baserrien izenak. Oikiako baserri-izenak.

12. "Atxula" inguruan oikiar gehienek lur-saila zuten

- **Erref:** ZUM-010/018
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:47:45. **Bukatu:** 00:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Lur-sail bakoitzak bere izena izaten zuen eta izenetatik identifikatzen zituzten sailak. Pareko mendiak "Atxula" zuen izena eta oikiar gehienek zuten lur-saila bertan. Ota ekartzen zen mendi hortatik eta gerra-ostean patata ereiten zen bertan.

13. Oikia eta San Migel errekaaren alde banatan

- **Erref:** ZUM-010/019
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:49:40. **Bukatu:** 00:51:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Errekaren alde batekoa Oikia da eta beste aldekoa San Migel. Mugan dauden baserrien izenak. Ezkazabal baserria autopistaren eraginez galdu zen.

14. Oikiako eta inguruetakako erromeriak

- **Erref:** ZUM-010/020
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:54:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Oikia herri txiki baten antzekoa zen. San Bartolome da herriko patroia eta jaiak izaten ziren San Bartolomeetatik San Migelak arte. Oikiako erromeriak ezagunak ziren eta inguruetakako jende asko etortzen zen. Gaztetako denbora-pasa inguruko erromerietara joatea izaten zen. Festaleku berezia zen Aizarnazabalgo "Txiua" (Txiriboga); bide erdian egiten zen erromeria. Meagako erromeria ere inportantea zen, baina beranduago hasitakoa. Barrentzo soinu-jolea.

Transkripzioa

- Eta zuen gazte denporan eta, Oikiya gaiñera nahiko... Zumaia da, baiña herri txiki bat bezalakua da, ez?
- Bai, bai, bai.
- Oikiya beti, zuentzako oikiarrak...
- Oikiya beti, Oikiya hola barriyo popular xamarra izan dek beti, zea, bere... bastante... Beste eozein barriyok baiño zea gehio zakan.
- Bai, ez?
- Bai.
- Iya-ia, herri... herri-koxkor bat, ez?
- Herri-koxkor bat, bai. Kao, aiuntamientoik ta hoiek, gauza hoiek ez zazkan, baiña festetan-ta ta... diferentia. Hamen Oikiyan San Bartolometan itten dittuk festak, bertoko patroia San Bartolome dek. Ta San Migel arte itten dittuk hor jaiero erromeia.
- San Migel?
- Oikiyan.
- Oikiyan?
- Bai. San Migeletan. Geo San Migelak ta ya ordun bukatzen huan Oikiyako festak. Bestela, jaiero-jaiero ta.
- San Bartolometatik...
- San Migelak arte.
- San Migelak arte. Ta jendia, erromei popularra huan. Honea jendia etortzen huan pues alde guztittatikan, ingurutako baserri danetatik.
- Aizarnazabal ta...
- Bai, bai, bai.
- Elkano ta Mia ta...
- Bai, bai, bai. Danetatik.
- Ta ze izaten zan erromeia? Dantzaz?
- Soñujotzaille bat ta zea, azkenaldea [jazz banda] o esaten zakon hoi, hiru-lau platillo ta ti-ta-ta-ta-ta, zeoze kanbiyatzen ziyaen soiñua ta, [...]. Baiña jendia etortzen huan barra-barra.
- Eta bestela, gaztetan, zuen denpora pasatzeko modua zein izaten zan

jaiegunetan eta?

- Hoixe! Erromeia zeon lekura jun in behar! Bertan ez bazeon, pues, beste, beste leku batea. Ordun, festak zian lekun itten hittuan. [...] herrittan zanian, [...] herrittan festa espeziala huan, jendia juten huan...

- Bai, e?

- Lepo juten huan. Ta en kanbio, San Migeletan zanian, Aizarnazabalen eo, San Migelen eo... Hau ta hor... Geo, festa-leku espezialak ta zeak zaben ordun, zean, Aizarbazabalen. Txiriboga o Txigua, Txigua esaten zakon... Han'e igual ingo huan dozena erdi bat jaittan zea, erromeia.

- Erromeia? Han, kamiyuan.

- Kamiyuan bertan.

- Bai, bai, karreteran.

- [...] bidegurutzian.

- Mian'e karreteran itten huan erromeia lehen.

- Bai?

- Bai, bai, bai.

- Miakua gaiña inportantia izaten zan, ez?

- Bai, bai, bai. Mian San Isidruak hittun, baiña hori gero hasitakua huan, pixkat gu koskortu ezkeo. Baiña erromeia, gu txikiyak giñan arte, barruan iten huan. Barrentzo soiñujotzailliak jotzen zin soiñua, soiñu zahar batekin, pon-pon-pon-pon, [...] dantzan ta.

15. Oikiako eta inguruko herrietako euskararen arteko konparaketa

- **Erref:** ZUM-010/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:54:25. **Bukatu:** 00:56:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Oikiako euskara eta ingurukoen arteko konparaketa. Zumaian eta Itziar aldean "xa" bukaerak egiten omen dira, eta Oikian ez. Tonu desberdina omen dute Zumaiaokek. Aizarnazabalen, berriz, "Aizarnazabalkok" esaten omen dute.

16. Angula asko zen errekan; bahearekin harrapatzen ziren

- **Erref:** ZUM-010/023
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:57:45. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

Inguruetan anguletan egiten zen. Berak ere egin izan du, baina ez asko gaez edo goizaldera egin behar izaten zen eta. Erreka garbia zen eta angula ugari harrapatzen ziren. Bazterretik harrapatzen ziren gehienetan angulak bahearekin, baina zenbaitzuk txanaletan ere ibiltzen ziren. Gerora motordun ontzitxoak ere hasi ziren. Hasieretan norberarentzat izaten ziren harrapatutako angulak, baina gerora Aginagan "anguletxe" bat jarri zuten eta hara eramaten zituen jendeak diru-truke.

17. Angulen inguruko azalpenak

- **Erref:** ZUM-010/024
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:00:30. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Flora
- Natura » Fauna
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Angulen inguruko azalpenak. Angulak itsasoan bola handi bat eginda ibiltzen omen dira, eta ur geza somatzen dutenean desegiten omen da bola. Korrontearen kontrako norabidean joaten dira beti angulak elkarri lotuta sokak eginez. Euren etxe inguruko presan, esaterako, soka egin eta goraka joaten ziren eta gora iristean askatu. Gainera, atzeraka joaten omen dira.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com